

GIPUZKOAKO ETEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA, 2026KO IRAILAREN 22TIK 24RA BITARTEAN SIEMA MAROC AZOKARA (MAROKO) EGINGO DEN BISITAN PARTE HARTZEKO, PYME GLOBAL 2026 PROGRAMAREN ESPARRUAN, 2021-2027 ESKUALDE GARAPENERAKO EUROPAKO FUNTSAREK (FEDER) BATERA FINANTZATUA.

1. TESTUINGURUA

Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberarekin batera, Pyme Global programa (“Programa”) jarri du abian, Espainiako 2021-2027 FEDER Programa Plurirregionalaren (POPE) esparruan; programa hori Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) %40an batera finantzatzen du.

Pyme Global programa aipatutako Programa Plurirregionalaren 1. Helburu Politikoaren barruan kokatzen da: “Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa, ekonomia-eraldaketa berritzaile eta adimentsua sustatuz, bai eta informazioaren eta komunikazioen teknologietarako eskualde-konektibitatea ere”; OE.1.3 Helburu Espezifikoan: “ETE-en hazkunde jasagarria eta lehiakortasuna indartzea, bai eta enplegua sortzea ere, inbertsio produktiboen bidez ere”; eta TI0021 Esku-hartze Esparruan: “Enpresa-garapena eta ETEen nazioartekotzea, inbertsio produktiboak barne”.

Pyme Global programa nazioartekotzeari laguntzeko sortu da, eta helburu du Espainiako ekonomiaren esportatzeko joera eta esportazio-oinarria hobetzea; Espainiako esportazioaren helmugako merkatuak dibertsifikatzea; eta Espainiako ekonomiaren lehiakortasuna handitzea, Espainia inbertsiorako helmuga gisa bultzatzeko. Pyme Global programan Espainiako ETEen nazioartekotzeari laguntzeko xedera egokitzen diren jarduketak sartzen dira.

Era berean, jarduketa horiek Nazioartekotzeko Ganbera Planaren barruan kokatuko dira; izan ere, Ganberak urtero prestatu eta gauzatu behar dute plan hori, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen Oinarrizko apirilaren 1eko 4/2014 Legearen 22. artikuluan jasotakoaren arabera. Aurrekoa kontuan hartuta, jarduerak aipatutako Ganbera Planaren oinarrizko orientabide eta gidalerroekin bat etorri beharko dute.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialak, Gipuzkoako lurraldeko ETEei zuzendutako laguntzen deialdi honen bidez, Pyme Global programaren esparruan SIEMA MAROC 2026 AZOKARAKO BISITA (MAROKO) jarduketan parte hartuko duten enpresak hautatzeko prozesua gauzaten du.

Laguntzak deialdi honetan ezarritako prozeduraren arabera emango zaizkie laguntza lortzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei, betiere aurrekontu-zuzkidura erabilgarri badago.

2. ERAKUNDE DEITZAILEA

Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu Ganbera Ofiziala (aurrerantzean, “Gipuzkoako Merkataritza Ganbera” edo “Ganbera”), zuzenbide publikoko korporazioa da, nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa dituena, eta Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen Oinarrizko apirilaren 1eko 4/2014 Legeak arautzen duena.

3. ARAUBIDE JURIDIKOA

Laguntzen emakida deialdi honetan xedatutakoaren arabera arautuko da, publizitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin bat etorritz.

Programari aplikatzekoak zaizkio, jarduketak Europar Batasuneko FEDER funtsekin batera finantzatzen diren neurrian, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamendua, Eskualde Garapenerako Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtza Plusari, Kohesio Funtzari, Bidezko Trantsiziorako Funtzari eta Itsas, Arrantza eta Akuikulturako Europako Funtzari buruzko xedapen komunak ezartzen dituena, bai eta funts horiei eta Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtzari, Barne Segurtasuneko Funtzari eta Mugak Kudeatzeko eta Bisatuen Politikarako Finantza Laguntzako Tresnari buruzko finantza-arauak ere; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1058 (EB) Erregelamendua, Eskualde Garapenerako Europako Funtzari eta Kohesio Funtzari buruzkoa; bai eta kasu bakoitzean aplikatzekoak diren Europar Batasuneko arauak eta haiek garatzeko edo transposatzeko arau nazionalak ere.

Era berean, deialdi honetan aurreikusitako laguntzak Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako de minimis laguntzen araubidean sartzen dira; erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

4. XEDEA

Deialdi honen xedea da Gipuzkoako Ganberaren lurralde-eremuko ETEek 2026ko irailaren 22tik 24ra Casablanca hirian (Maroko) egingo den SIEMA MAROC Azokarako Bisitan parte hartzea sustatzea. Jarduketa hau sektore anitzekoa da.

Jarduketa bera hainbat urtetan antolatzen bada, enpresa berak gehienez 4 aldiz parte hartu ahal izango du jarduketa horretan.

5. ONURADUNEN BALDINTZAK

Onuradun izan ahal izango dira jarraian adierazten diren laguntza-programan parte hartzeko ezinbesteko baldintzak betetzen dituzten enpresak:

- Enpresa txiki edo ertaina izatea, ETEaren definizioaren arabera, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako definizioarekin bat etorriz; erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. <http://www.boe.es/doue/2014/187/L00001-00078.pdf>

Enpresatzat hartuko dira eskabidea aurkezteko unean balioz eratuta dauden eta jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisiko eta juridikoak. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak ere. Era berean, kanpoan geratzen dira autoenplegu-egoeran dauden pertsonak, baldin eta sozietate-autonomo edo autonomo laguntzaile izaera badute.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Erroldan alta emanda egotea.

Salbuetsita geratzen dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren I. eranskineko zerrendan ageri diren nekazaritzako produktuen lehen ekoizpenean jarduten duten enpresak, bai eta arrantzako eta akuikulturako produktuen lehen ekoizpenean jarduten dutenak ere, 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren 2.1 artikuluan jasotako definizioen arabera.

Hala ere, aurreko paragrafoan baztertutako produktuen lehen ekoizpenean jarduten duten enpresak onuradun izan ahal izango dira, baldin eta produktu eraldatua geratzen badute, merkaturatze-jarduerarekin EJZn alta emanda badaude eta laguntza berariaz merkaturatze-lan horretara bideratzen bada.

- Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren lurralde-eremuko udalerriren batean egoitza soziala eta/edo ekoizpen-zentroa izatea, erroldan jasotako datuen arabera. Enpresa batek hainbat egoitza edo ekoizpen-zentro baditu, Programaren hartzaile eta zuzeneko onuradun izango den zentroak aipatutako udalerrietako batean kokatuta egon beharko du.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan, edo dagokion autonomia-erkidegoko arloan aplikatzekoa den araudian, aipatzen diren debekuetako batean ez egotea.
- Krisian dagoen enpresatzat ez hartzea, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan xedatutakoaren arabera; erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, eta krisian dauden finantza-sektorekoak ez diren enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideetan (2014/C149/01) ezarritako definizioarekin bat etorriz.
- Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan jasotako de minimis araua betetzea; erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da (DO L, 2023-12-15). Horren arabera, “enpresa bakar” bati emandako de minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ezin izango da 300.000 eurotik gorakoa izan emakida horren aurreko hiru urteetan.
Kontuan hartu behar da 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren 2.2 artikuluan jasotako “enpresa bakar” definizioa; haren arabera, aipatutako Erregelamenduan ezarritako baldintzetan lotuta dauden enpresak enpresa beratzat hartzen dira de minimis araua aplikatzeko.
- Itxitako azken ekitaldian gutxienez 100.000 €-ko fakturazioa izatea.
- Azken ekitaldian (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra) batez beste gutxienez besteren konturako 2 langile izatea.
- Deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea.

Aurreko atalak betetzen direla egiaztatzeko, enpresak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Parte hartzeko baldintzak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (deialdi honetako II. eranskinaren arabera).
- Amaitutako azken urteko BEZaren urteko aitortpena edo, eskuragarri dagoen azken urteari dagokionez, eskatutako fakturazioa betetzen dela egiaztatzeko balio duen beste edozein dokumentu ofizial.
- Alta emandako langileen batez besteko plantillaren txostena, TGSSk emana, 2025-01-01etik 2025-12-31ra bitarteko aldi.
- Dirulaguntzak lortzeko ondorioetarako, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen Foru Ogasun eskudunaren ziurtagiria.

- Foru Ogasun eskudunak emandako jarduera ekonomikoen ziurtagiria, eskatzailearen zentro operatiboa, benetan garatutako jarduera ekonomikoak eta jarduera horien antzintasuna adierazten dituen.

Zerga-betebeharrekin lotutako informazioari dagokionez, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95.1 k) artikuluan eta Administrazio Publikoari beren eginkizunak garatzeko zerga-informazioa ematea arautzen duen 1999ko azaroaren 18ko Aginduaren 2.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bai eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 113.1 artikuluan (egungo 95.1 artikulua) aurreikusitako kasuekin bat etorriz ere, parte hartzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar eskatzaileak baimena ematea Ganberak eta Espainiako Merkataritza Ganberak ofizioz eta automatikoki lor dezaten, batetik, AEATrekiko zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, eta, bestetik, eskatzaileak alta emanda dituen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (EJZ) epigrafeei eta AEATn jasota dagoen jarduera ekonomikoaren antzintasunari buruzko informazioa.

Era berean, deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eskatzaileak baimena ematen du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharren egoera telematikoki kontsultatzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, bai eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako inguruabarretakoren batean ez dagoela egiaztatzeko ere, dirulaguntzen onuradun izateko baldintza betetzeari dagokionez.

Baimen horiek ematen ez badira, datu horiek eskuratzea eragozten duen inguruabarren bat badago, edo ofiziozko kontsulta ez bada ondorioztagarria deialdian eskatutako baldintzaren bat betetzen dela zehazteko, Merkataritza Ganberak interesdunei eskatuko die baldintzak betetzen direla kasu bakoitzean beharrezkoa den dokumentazioaren bidez egiaztatzeko.

Honako hauek eskatu ahal izango dira:

- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren ordezkari-tza-ahalordea (sinatzaileak enpresaren legezko ordezkari izan beharko du).
- Dirulaguntzak lortzeko ondorioetarako, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak emana.
- Dirulaguntzak lortzeko ondorioetarako, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, TGSSk emana.
- AEATk emandako Zentsu Egoeraren Ziurtagiria, eskatzailearen zentro operatiboa, benetan garatutako jarduera ekonomikoak eta haien antzintasuna adierazten dituen.

Nolanahi ere, Merkataritza Ganberak deialdiaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko egokitzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du.

6. LAGUNTZEN AURREKONTUA ETA ZENBATEKOA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK.

Deialdi honen esparruan SIEMA 2026 AZOKARAKO BISITA jarduketa gauzatzeko gehieneko aurrekontua 9.428,26 eurokoa da, Espainiako 2021-2027 FEDER Programa Plurirregionalaren (POPE) esparruan, eta honela banatzen da:

6.1 Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren laguntza-zerbitzuen aurrekontua

Zerbitzu horiek Merkataritza Ganberei apirilaren 1eko 4/2014 Legeak esleitutako izaera publiko-administratiboko eginkizunen esparruan egiten dira, enpresa-sarea indartzeko, kanpo-merkataritzari laguntzeko eta hura sustatzeko jarduerak garatuz.

Zerbitzu horien aurrekontua 5.233,86 eurokoa da, eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak aurrez finantzatu du osorik; beraz, jarduketan parte hartzen duen enpresarentzat ez du inolako ordainketarik edo kosturik ekarriko.

Zerbitzu horiek garatzeko finantzaketa Europar Batasuneko Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak emango dute.

6.2 Parte hartzen duten ETEen gauzatze-aurrekontua:

Deialdi honetan parte hartzen duten ETEen gauzatze-aurrekontua 4.194,40 eurokoa da, eta jarraian zerrendatzen diren kontzeptuak hartzen ditu barne; kontzeptu horiek deialdi honi erantsitako I. eranskinean, "Gastu Hautagarrien Tipologia eta Justifikazioa" izenekoan, jasota daude:

- ✓ Bidaia-gastuak (garraioa, ostatua eta mantenua) estaltzeko kostu unitarioa, erreferentzia objektibo batetik abiatuta kalkulatu, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 53.3 artikuluko a) letrako i) idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorritik.
 - Garraio-gastuen kostu unitarioa: 365 euro.
 - Ostatu- eta/edo mantenu-gastuen kostu unitarioa: 205 euro / helmugako jarduera-eguna.
- ✓ Gainera, enpresen zeharkako kostuak tasa finkoaren bidez finantzatu dira, diruz lagun daitezkeen zuzeneko kostuen %7ko ehunekoa aplikatuta, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 54. artikuluko a) letraren arabera.

Enpresa onuradun bakoitzeko gehieneko laguntzaren zenbatekoa 419,44 eurokoa da, atal honetan zehaztutako gastuen zenbatekoaren FEDERen %40ko baterako finantzaketari dagokiona; gainerako %60a enpresa onuradunak jarriko du, eta enpresa horrek gastu horiek kontratatu eta aurrez finantzatu beharko ditu.

Aurreikusitako enpresa onuradunen gehieneko kopurua 4 da.

7. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Deialdiaren testua eta dagozkion eranskinak Gipuzkoako Ganberaren Egoitza Elektronikoa (<http://www.camaragipuzkoa.com>) eta Dirulaguntzen Datu Base Nacionalean (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/inicio>) daude eskuragarri.

Interesdunek eskabidea eta hari erantsitako dokumentazioa soilik aurkeztu ahal izango dituzte horretarako gaitutako formularioaren bidez, <https://sede.camara.es/sede/gipuzkoa> Egoitza Elektronikoa, deialdi honetan aurreikusitako baldintzetan.

Eskabideak aurkezteko epea 09:00etan irekiko da, deialdi honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 5 egun baliadun igaro ondoren, eta 2026/07/30ean 14:00etan amaituko da, edo data hori baino lehenago, baldin eta deialdi honetako 6. atalean ezarritako aurrekontu-kreditua agortzen bada Gipuzkoako Merkataritza Ganberak onartutako 4 laguntza-eskabideak betetakoan.

Enpresa bakoitzeko eskabide bakarra izapidetzeko onartuko da. Interesdun berak deialdi honetara hainbat eskabide aurkezten baditu, epe barruan Egoitza Elektronikoa erregistratutako lehena baino ez da kontuan hartuko, eta ondorengoak ez dira izapidetzeko onartuko.

Parte hartzeko eskabidea interesdunak edo haren legezko ordezkariak zuzenbidean baliozkoa den eta haren existentzia modu fede-emailean jasota uzten duen edozein bideren bidez egiaztatzen duen pertsonak elektronikoki sinatuko du. Eskabidea sinatzen duenak egiaztatu beharko du, eskabidea aurkezteko unean, egintza horretarako ordezkariak nahikoa duela.

Eskatzaileak ziurtagiri elektronikoa aitortua izan beharko du. Aurretik adierazitako Interneteko helbidean, Egoitza Elektronikoa onartzen dituen ziurtagiri-agintaritzen zerrenda dago.

Ez da izapidetzeko onartuko Egoitza Elektronikoa ez den beste kanal baten bidez aurkeztutako eskabiderik, ezta deialdi honetan ezarritako eskabideak aurkezteko azken dataren ondoren aurkeztutakorik ere.

Balioz aurkeztutako joko dira gutxieneko baldintza hauek betetzen dituzten eskabideak bakarrik: I) Egoitzako eskabide-formularioan nahitaezkotzat identifikatutako eremuak behar bezala beteta egotea eta haien edukia ulergarria eta eskatutako informazioarekin koherentea izatea; eta II) parte hartzeko eskabide-formularioari erantsitako nahitaezko dokumentuak enpresa eskatzaileari buruzkoak izatea eta haien edukia argi eta garbi bat etortzea eskatzen diren xedearekin; baldintza horiek betetzen ez dituzten dokumentuak ez dira onartuko.

Aipatutako gutxieneko baldintzaren bat betetzen ez bada, eta ez-betetzea akats material edo aritmetikoen ondorio ez bada, eskabidea ez da izapidetzeko onartuko.

Ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eskabideak baloratuko dira, betiere aurrekontu-erabilgarritasuna bada.

Eskabidean eta/edo aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak badaude, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun balioduneko epean, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko; ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Dokumentazioa deialdian aurreikusitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko da.

Ezarritako kupoa gainditzen duten eskabideak onartu ahal izango dira, itxaron-zerrenda bat (5 enpresakoa) edukitzeko, onartutako eskabideren batek prozesuan atzera egiten badu edo azken gauzatzea aurreikusitakoa baino txikiagoa bada eta soberakin erabilgarriak geratzen badira.

Eskabidea aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintzak, betekizunak eta betebeharrak berariaz onartzea dakar.

Interesdunek emandako informazioaren eta aurkeztutako dokumentuen egiazkotasunaren erantzukizuna izango dute.

8. EMAKIDA-PROZEDURA, HAUTAKETA-IRIZPIDEAK ETA EBAZPENA

Laguntzak emateak publizitatearen, gardentasunaren, lehia askearen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuko ditu, eta aurrekontu-erabilgarritasunak mugatuko dute.

Programan parte hartzeko eta enpresak onartzeko eskabideak Egoitza Elektronikoan sarrera-erregistroaren hurrenkera zorrotzaren arabera hautatuko dira.

Laguntzak Egoitza Elektronikoan eskabidea erregistratu den hurrenkeraren irizpide bakarraren arabera emango dira, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdi honetan esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Nazioarteko Garapeneko Saila izango da prozeduraren instrukzio-organoa, eta Sail Juridikoa izango da ebazteko organo eskuduna.

Eskabideen ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie onuradunei Merkataritza Ganberaren Egoitza Elektronikoaren bidez. Deialdiko onartuen, ukatuen eta itxaron-zerrendaren zerrenda esteka honetan kontsultatu ahal izango da: <https://www.camaragipuzkoa.com>

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea ezin izango da 6 hilabetetik gorakoa izan, deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Merkataritza Ganberaren Administrazio tutelatzailearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan eta Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen Oinarrizko apirilaren 1eko 4/2014 Legearen 36. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, errekurtoa ezetsitzat jo ahal izango da, eta interesdunak bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango du.

Ganberak jarduketaren antolaketa bertan behera uzteko eskubidea izango du, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten gutxienez 4 enpresa ez badaude; bertan behera uztearen berri deialdi hau zabaltzeko erabilitako bitarteko berberen bidez emango da.

9. IZAPIDETZEA

Parte hartzen duten eta eskabidea onartu zaien ETEentzako laguntzaren izapidetzea onarpen-ebazpena sinatuz egingo da; ebazpen horrek laguntzaren baldintzak jasoko ditu.

Ebazpen horrek DECA izaera izango du (Laguntzaren Baldintzak Ezartzen dituen Dokumentua), 2021/1060 Xedapen Komunen Erregelamenduaren (RDC) 73.3 artikulua onorioetarako.

10. LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Justifikaziotzat joko da, nolana ere, egindako gastuen egiaztagiriak aurkeztea; diruz lagundutako jardueraren gastu osoa jaso beharko da, nahiz eta dirulaguntzaren zenbatekoa txikiagoa izan.

Dirulaguntza eman zen xedea bete dela, jasotako funtsak aplikatu direla, ezarritako baldintzak bete direla eta deialdian aurreikusitako xedea edo helburuak lortu direla justifikatzea enpresa onuradunei dagokie.

Justifikazio ekonomikoa abenduaren 27ko HFP/1414/2023 Aginduan ezarritakoaren arabera egingo da; agindu horren bidez, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak eta Bidezko Trantsiziorako Funtsak 2021-2027 aldirako finantzatutako programetako diruz lagun daitezkeen gastuei buruzko arauak onartzen dira. Ildo horretan, diruz lagun daitezkeen gastu guztiek zalantzarik gabe egon beharko dute batera finantzatutako eragiketari lotuta.

Laguntzaren justifikazioa I. eranskinean (“Gastu Hautagarrien Tipologia eta Justifikazioa”) jasotako jarraibideak kontuan hartuta egingo da, prozedura honen arabera:

- a. Gastu guztiak ordainduta egon beharko dira onarpen-ebazpenaren 2. puntuan (sortzapen- eta ordainketa-egutegia) adierazitako HAUTAGARRITASUNAREN AMAIERA-DATA baino lehen, onartutako ordainketa-moduetako baten bidez.

- b. Gastuen justifikazio osoa onarpen-ebazpenaren 2. puntuan (sortzapen- eta ordainketa-egutegia) adierazitako DOKUMENTU-JUSTIFIKAZIOAREN AMAIERA-DATA baino lehen egin beharko da, laguntzak justifikatzeko plataforma elektronikoaren bidez: <https://justifica.camaras.es/ayudas>, betiere I. eranskinean (“Gastu Hautagarrien Tipologia eta Justifikazioa”) jasotako jarraibideei jarraituz.
- c. Justifikazioa aurkezteko epea igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, Merkataritza Ganberak enpresa onuradunari eskatuko dio dokumentazioa gehienez 15 egun balioduneko epean aurkezteko. Epe berri horretan justifikazioa aurkezten ez bada, laguntza baliogabetzeko arrazoia izango da eta, beraz, laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.
- d. Berrikuspen-prozesuan onuradunak aurkeztutako justifikazioan zuzendu daitezkeen akatsak daudela antzemanaz gero, horren berri emango zaio onuradunari, eta hamar egun balioduneko epea emango zaio zuzenketa egiteko.
- e. Merkataritza Ganberak enpresa onuradunari egokitzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio, parte hartzeko baldintzak eta onuradunaren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.
- f. Dokumentazioa egiaztatu eta aurkeztutako gastuak onartu ondoren, Espainiako Merkataritza Ganberak enpresa onuradunari ordainduko dio FEDER finantzaketari dagokion laguntzaren zenbatekoa, banku-transferentzia bidez. Enpresak, laguntza ordaindu aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatu beharko du. Horretarako, enpresak baimena ematen dio Espainiako Merkataritza Ganberari telematikoki egiaztatzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren ondorioetarako, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95.1 k) artikuluekin eta Administrazio Publikoari beren eginkizunak garatzeko zerga-informazioa ematea arautzen duen 1999ko azaroaren 18ko Aginduaren 2.4 artikuluekin bat etorritik, bai eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 113.1 artikuluan (egungo 95.1 artikulua) aurreikusitako kasuekin bat etorritik ere. Baimen hau laguntzaren ordainketa izapidetzeko aurretiazko kontrolaren ondorioetarako bakarrik ematen da, eta edozein unetan baliogabetu ahal izango da, Espainiako Merkataritza Ganberari zuzendutako idazki baten bidez.
- g. Azkenik, Espainiako Merkataritza Ganberak gastuak FEDERen aurrean ziurtatuko ditu.

11. LAGUNTZEN METAKETA ETA BATERAGARRITASUNA

Deialdi honetan araututako laguntzak jasotzea, laguntzaren zenbatekoak inoiz ezingo duelarik diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, bateraezina izango da helburu bererako edozein administrazio

edo erakunde publiko zein pribatu, nazional, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakunderen beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa betez, laguntza hauek de minimis araubideari lotzen zaizkio; horren arabera, enpresa bakar bati emandako laguntza osoa ezin izango da 300.000 eurotik gorakoa izan emakidaren aurreko hiru urteetan.

Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada, eta, nolana ere, edozein erakunde publiko edo pribatu, nazional edo nazioartekok emandako dirulaguntzak aldi berean lortzen badira, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da.

12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunen betebeharrak Programaren helburuetatik eta deialdi honetan eta haren eranskinetan ezartzen diren funtzionamendu-, ekonomia-, informazio- eta kontrol-baldintzak betetzetik eratortzen direnak izango dira, eta bereziki honako hauek:

- a. Programaren helburuak lortzen aktiboki parte hartzea; zehazki, Ganberarekin lankidetzan aritu beharko du, zerbitzuak jasotzeko eta ahalik eta aprobetxamendu handiena lortzeko jarrera egokia erakutsiz, eta eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala bidaliz.
- b. Deialdi honen xede den laguntzaren FEDER bidezko baterako finantzaketari eragiten dion arauditik eratorritako betebehar guztiak betetzea.
- c. Programan parte hartzeari dagokionez, ganberako teknikariak, Merkataritza Ganberak, Espainiako Merkataritza Ganberak edo Programaren kontrol-, jarraipen- eta ebaluazio-organismoek eskatzen dioten edozein errekerimenduri erantzutea.
- d. Laguntza emateko eskatutako baldintzaren bati eragiten dion edozein inguruabarren aldaketa Merkataritza Ganberari jakinaraztea.
- e. Programaren esparruan onartutako gastuen jatorrizko dokumentuak bost urteko epean gordetzea, kudeaketa-agintaritzak onuradunari azken ordainketa egiten dion urteko abenduaren 31tik aurrera, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 82. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.
- f. Batera finantzatzeko aurkeztutako eragiketen transakzio guztiei (gastuak eta diru-sarrerak) dagokienez, kontabilitate bereiziko sistema edo kontabilitate-kode egokia edukitzea (2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 74.1.a.i artikulua).
- g. Kudeaketa-eremuan iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak aplikatzea: kontratazioaren kalitate-kontrola eta gardentasuna, interes-gatazka posibleen kontrola eta falsifikazio posibleen kontrola. Era berean, antzemandako iruzur-kasuak edo iruzur-susmoak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dizkio Merkataritza Ganberari, bai eta horiek zuzentzeko eta jazartzeko aplikatzen diren neurriak ere.

- h. Eragiketa gauzatzeko behar den administrazio-, finantza- eta operazio-gaitasun egokia izatea.
- i. Bere datuak argitaratutako zerrendan sartzeko baimena ematea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 49.3 artikuluekin bat etorriz, eta jakitun izatea laguntza onartzeak aipatutako zerrendan sartzeari onartzea dakarrela.
- j. Programak batera finantzatzeko eragiketari lotuta jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.
- k. FEDER funtsen laguntzari buruzko zabalkunde- eta komunikazio-betebeharrak betetzea; betebeharrak horiek Merkataritza Ganberak adieraziko dizkio, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 50. artikuluan ezarrita eta erregelamendu horren IX. eranskinean garatuta daude. Horrela, egiten dituen informazio- eta komunikazio-neurri guztietan, onuradunak funtsen laguntza aitortu beharko dio eragiketari, eta konpromisoa hartuko du eragiketari buruz hirugarrenen aurrean edo herritarren aurrean aipamena egin behar duenean beti adierazteko.
- l. Jarduketak gauzatzeko ingurumenaren gaineko inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko konpromisoa hartzea, “kalte esanguratsurik ez eragiteko” printzipioa errespetatuz (“do no significant harm” printzipioa - DNSH), 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 9.4 artikuluan ezarritako zentzuan.
- m. Enpresa hornitzaileek emandako zerbitzuak garaiz eta behar bezala ordaintzea, eta Merkataritza Ganberak adierazitako epean eskatutako justifikazio-dokumentazioa bidaltzea.
- n. Programari dagokionez, hura gauzatu dela egiaztatzeko izendatutako organoak egin ditzakeen egiaztapen-jarduketan mende jartzea, bai eta kontrol-organo eskudunek —autonomikoen, nazionalen edo Europar Batasunekoek— egin ditzaketen jarduketan mende ere, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egitean eskatzen zaion informazio guztia emanez.
- o. Hala badagokio, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea, aplikatzeko den araudian xedatutakoaren arabera hala dagokion kasuetan.

13. ONURADUNAREN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Deialdi honetan xedatutakoa ez betetzea, laguntza eman zen helburuak ez betetzea, justifikaziorik ez aurkeztea edo epea kanpo aurkeztea, edo onuradunari ezarritako betebeharrak ez betetzea, laguntza kobratzeko eskubidea galtzeko eta/edo, hala badagokio, laguntza osoa itzultzeko arrazoia izango da.

Nolanahi ere, balizko ez-betetzeen aurrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

14. INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduan aurreikusitakoa betez, deialdi honen bidez jakinarazten zaie onuradun izan daitezkeen guztiei

Programaren onuradun gisa hautatzen direnen identitateari buruzko datuak (sozietate-izena, IFK/CIF eta parte hartzeko eskabidean agertzen diren beste datu batzuk), bai eta parte hartzen duten eragiketen izena eta esleitutako funts publikoen zenbatekoa ere, aipatutako Erregelamenduan aurreikusitako baldintzetan argitaratuko dituela Ogasun Ministerioko Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo hark izendatzen duen beste organismo batek.

Era berean, jakinarazten da Programan parte hartzeko eskabidea aurkeztearen bidez eskatzaile guztiek baimena ematen dutela, onuradun gisa hautatzen badira, aurreko paragrafoan adierazitako datuak aipatutako manuetan aurreikusitako zerrendan sartzeko eta Espainiako Merkataritza Ganberak argitaratzeko (modu elektronikoa eta/edo beste bitarteko batzuen bidez), bai eta erakunde horrek datu horiek Ogasun Ministerioko Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiari edo hark izendatzen duen beste organismo bati lagatzeko ere, adierazitako helburuetarako.

Gainera, eskabidea azkenean onartzen bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 49.3 artikuluan aurreikusitako eragiketen zerrenda publikoan argitaratuko da, bere izenarekin/sozietate-izenarekin eta jasotako laguntzaren zenbatekoarekin.

Enpresa hartzaileak aitortzen du 2021/1060 (EB) Erregelamenduan, 2021/06/24koan, aurreikusitako argitaratzeko betebeharraren berri jaso duela, eta berriro ematen du berriazko baimena identitateari buruzko datuak (sozietate-izena, IFK/CIF eta Programan parte hartzeko eskabidean agertzen diren beste datu batzuk), parte hartzen duen eragiketen izena eta esleitutako funts publikoen zenbatekoa aipatutako manuak aurreikusitako zerrendan sartzeko eta Espainiako Merkataritza Ganberak argitaratzeko, bai eta erakunde horrek Ogasun Ministerioko Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiari edo hark izendatzen duen beste organismo bati lagatzeko ere, adierazitako helburuetarako.

15. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean [2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena] ezarritakoaren arabera, Espainiako Merkataritza Ganberak, Madrilgo C/ Ribera del Loira 12, 28042 helbidean, eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak, Gipuzkoako Tolosa hiribidea 75, 20018 Donostia-San Sebastián helbidean, ENPRESA ONURADUNAREN datuak tratatuko dituzte erantzunkidetasun-erregimenean. Datuen tratamendu hori beharrezkoa da Pyme Sostenible Programa kudeatzeko. Tratamendu horren helburua Programaren gauzatzea, garapena, jarraipena eta kontrola ahalbidetzea da. Programaren esparruan, haren datuak FEDERen arloko agintari eskudunei jakinaraziko zaizkie, Pyme Sostenible Programaren kofinantzaile diren heinean, helburu berberetarako. Era berean, haren datuak

tratatu ahal izango dira agintari eskudunek, hala badagokio, egin ditzaketen egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-jarduerak gauzatzeko.

Datuak Programaren amaieratik 5 urtez gordeko dira, programan parte hartzetik erator daitezkeen erantzukizunei erantzuteko, beste epe batzuk aplikatzekoak ez badira behintzat.

Sarbide-, zuzenketa-, ezabatze-, eramangarritasun-, mugatze- edo aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Ganberetako edozeini adierazitako helbideetara idatziz edo info@camaradegipuzkoa.com helbide elektronikora mezu bat bidaliz. Nortasun-agiriaren kopia edo identifikatzen duen antzeko dokumentu ofizialaren kopia erantsi beharko du. Egokitzen jotzen badu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

Gipuzkoako Merkataritza Ganbera da deialdi honetako laguntzen erakunde deitzailea, eta ez du kanpoko enprekin lankidetzarik egiten programan jasotako dirulaguntzak kudeatzeko.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak ez du erantzukizunik izango eskatzaileek deialdi ofizial honetatik kanpoko bideetatik jaso ditzaketen informazioengatik.

16. HARREMANETARAKO DATUAK

Jarraian, Merkataritza Ganberaren harremanetarako helbideak jasotzen dira, arreta eta informaziorako (ez dira baliozkoak eskabideak aurkezteko):

Harremanetarako pertsona: Gorka Goikoetxea Zubia

Telefonoa: 943 000270

E-maila: ggoikoetxea@camaragipuzkoa.com

Deialdiari gehitu beharreko eranskinak

Deialdiaren I. eranskina

I. eranskin gisa sartzea

- Gastu hautagarrien tipologia eta justifikazioa

Deialdiaren II. eranskina

II. eranskin gisa sartzea

- Erantzukizunpeko adierazpenak